



2020KO EGUBERRIKO APAINDUREN LEHIAKETAREN ARAUDIA BALKOIAK, LEIHOAK, ETXEAK, LORATEGIAK, ERAKUSLEIHOAK

1. artikulua: Xedea

Urte amaierako besten kariatara, Hendaia Herriak, Hendaia Turismo eta Besta Batzordearekin elkarlanean, 2020ko Eguberri besten garaian apaindu balkioen, leihoen, etxeen eta lorategien eta saltegien erakusleihoen lehen lehiaketa antolatzen du. Lehiaketak honako xede hauek ditu:

- Eguberri izpiritua herriko auzo orotan heda dadila eta osasun krisiak garrastu egoera honetan giroa alaitzea.
- Herritarrek beren bizi ingurunea eta beren auzoa koloreztatzen egin ahaleginak saritzea.

2. artikulua: Izen emateak

Lehiaketa herritar orori da zabalik, izena Herriko Etxean emanaz gero. Parte hartzea urririk da eta internet bidez eman liteke izena, horretarako inprimakia betez, edo Herriko Etxean papera jaso eta bete ondoren berriz ere Herriko Etxean utziz. Ezin da izena telefono bidez eman.

Izena emateko azken epea 2020ko abenduaren 11 da.

3. artikulua: Kategoriak

Parte hartzaileek honako kategoria hauetako batean behar dute eman izena:

1. kategoria: Etxeak eta lorategiak
2. kategoria: Balkoiak edo leihoak (apartamentuak)
3. kategoria: Saltegiak eta lokal profesionalak

Sariak auzoka antolatuko dira.

- Herri barnea
- Hondarraitz
- Lizardi/Dongoxenea/Orio
- Irandatz/Olazo
- Geltokia
- Intzura

Epaimahaia hautetsiek, profesionalek eta biztanleek osatuko dute eta kategoria eta auzo bakoitzean egingen du sailkapena.

4. artikulua: Irizpideak

- 1) Arte sena eta originaltasuna (asmamena/antolaketa)
- 2) Energia aurrezteko ahaleginak (kontsumo urriko anpoilak...)
- 3) Material birziklatuak edota naturalak erabiltzeko ahaleginak
- 4) Apaindurak norberak eginak erosi ordez

Parte hartzaileak beren etxe aitzinak/baratzeak, gutxienik 2020ko abenduaren 19tik 26ra bitartean apaintzera engaiatzen dira.

Apaindurak karrikatik edota errepidetik ikusgai izanen dira. Epaimahaia abenduaren 19 eta 26 arteko tartean pasako da. Epaimahaia ez da jabego pribatuetan sartuko.

5. artikulua: Emaitzak eta sari banaketa

Lehiaketaren emaitzak abenduaren 29 asteartean emanen dira jakitera Herriaren webgunean eta irabazleei telefonoz edota e-postaz emanen zaie horren berri.

- Kategoria eta auzo bakoitzeko lehenak 50 € irabaziko ditu Hendaia Merkataritzaren opari txeketan, txeke horiek onartzen dituzten saltegietan balia ditzan (jokabidea hemen ikus: www.hendaye-commerces.com) 2021eko ekainaren 30 bitartean (ezin dira truka edo dirutan jaso).
- Hendaia Herriaren sari nagusia 150 € Hendaia Merkataritza opari txeketan, txeke horiek onartzen dituzten saltegietan balia ditzan (jokabidea hemen ikus: www.hendaye-commerces.com) 2021eko ekainaren 30 bitartean (ezin dira truka edo dirutan jaso).

6: Irudi eskubideak

Parte hartuko dutenek onartzen dute egin dituzten apainketen argazkiak egin dakizkien eta Hendaia Herriaren komunikazio euskarrietan argitaratuak izateko baime-na ematen dute.

7. artikulua: Araudia onartu eta aurkeztea

Eguberriko apainduren lehiaketa horretako parte hartzaileek erresalburik gabe onartzen dute honako araudi hau, bai eta, halaber, epaimahaiaren erabakiak.

Araudi hau, Harizabaleta bizitegi eraikinean, Hendaia Patar Handi karrikaren 3an, aurkeztu da eta hari ere emanen zaio emaitzen berri.

Araudi hau Herriko Etxean eskura daiteke, www.hendaia.eus Herriaren webgunean, bai eta Mongour uxer bulegoan ere.

8. artikulua: Lehiaketa bertan behera gelditzea

Hendaia Herriak bertan behera utz dezake lehiaketa parte hartzaileen faltan edota lehiaketa behar bezala joan dadin eragotz dezaketen gertakariak daudela iruditzen bazaio.